

1994ko urtarrilak 14

219. zenb.

PRESS

ARRASATE

Maltzaga-Urbina  
**Interbentzio**  
**Guneak**  
**martxan**

Plan Orokorra

**XXI. mendeko**  
**Arrasate**



**Neguko Hamabostaldia**

Araba Etorbidea, 18  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 14 86



**NEGUKO HAMABOSTALDIA**

Urtarrileko aldapa arinago izan dakizun,  
aprobetxatu ARRASATE KIROLAKeko  
aukera ezinhobea eta gogoratu, hemen  
KIROL BAKOITZARENTZAT  
ERANTZUN BAT duzulaJ35

J



Konizozino kalea, 8  
Tfnoa: 79 46 12  
ARRASATE

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



GATZAGAN

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Zoriontasuna

**A**zken aste haetako mezu propagandistikoek, "zoriona" hitza hainbeste aldiz errepikatzean, konturarazi didate denok erabiltzen dugun hitza dela, baina bakoitzak zentzu ezberdinarekin.

Nola egin dezakegu hitz berari buruz, esanahiaz ados ez gaudenean? Mezu propagandistikoek kasuan dituzten helburuak argi daude, baina ez al gara gu askotan gauza bera egiten ari? zenbat aldiz opa izan dizkiogu gabon zoriontsuak, benetan bost axola zaizkigun pertsoneri? Horrela geure buruari propaganda eginez, jator eta bihotz zabal garelara pentsa dezaten.

Hitz honen esanahiri buruz asko idáti da. Antonio Mercero zine zuzuendariaren ustez, zoriontasuna, egunero hamar minutu barre egitean dazta. Bernabé Tierno psikologoa-arentzat, aldiz, norberaren bizitzaz besteen alde zerbait onuragarria burutzenda zoriona. Kalean, zoriontasunaz galdeztean, ondasun familiar zein materialen balantze bat egiteko ohitura



dago. Familia, maitasuna, lagunak, eta jabe-go materiala metatzen dituen multzoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta multzo horren jabea zoriontsuagotzat jotzen da.

Nire ustez, belarrien artean daukagun kilo bat pasatxoko gai grisaren arabera agertuko da zoriontasuna, edo behintzat egunero ohetik jaikitze gogoia. Zorionez, gai gris hori kontrolatzea, eguraldia sobornatzea bezain ezinezkoa zaigu maiz.

"Mercerotar" eta "Tiernotar" kontzeptuak oso lagungarri izan daitezke zenbait momentuta arazoa ahaztu ezezik, pozik sentitze; baina inola ere ez, gure bizitzari zoriontasunaren etiketa preziatua ezartzeko.

Zoriontasuna, jende askoren bizitzaren helburua da, bera gabe bizitzari ezin diote zentzurik aurkitu. Antonio Gala idazle jakintsuak, haatik, zoriontasunik gabeko bizitza defendatzeko, honen adibide anitz daudela dio (berea kasu). Bizitzarik gabeko zoriontasuna ezinezkoa dela, hala ere.

Dena dela, gabonetan egia bada zoriontsuak garena eta behar-tuen alde zerbait egiten dena, fetxa batzuk izan beharrean, jarrera bezala bilatu beharko genuke.

**PAULO IBARRURI**

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 08 15

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimlano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Loge-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Paisajes españoles (1986ko maiatz)

# I R T A B E R N A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



**Alkoholarekin arazoak dauzkazu?**

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

## Urte hasieran

I turri eta azalaren azpiko uren nahiko bilketa onekin eman diogu hasiera aurtengo urteari. Beraz, landaketa autoktonoen etorkizuna zein izango den ongi ez badakigu ere, badakigu gure Deba maite honetan, Arro bezala, erreziboan prezioa igo egingo digutela iturriak ireki edo komuneko bonbari tira egiteagatik.

Baina beti esan izan duten bezala, garbantzulapikoa ez da amaitzen bi gramoz silizerengatik ...

Nahi eta nahi ez gure hezur-maminen zati diren egun hauetan, gure bizitzan iraganarekin alderatuz positiboak diren hainbat gauza jaso behar dugu.

Lehenik eta behin metalaren sektorea dugu, eta gungandik ehundaka metro gutxi dauden lekuetakoak adinako eraginik ez duela jaso ematen du. Futbola eta kirolak orokorrean, aurreko urtetan baino nahikoa maila altuagoan daude, jaiotza tasa altuagoaz: juerga onak egiten dira baina jendea erresponsablea da entrenamendu eta doluen ordua irtsitakoan. Gaur hamairu urterekin dugun maila kulturalak askorekin gainditu egiten du, zailantzi ez, lehen hamarrekin edo ia zazpirekin gurena.

Jatea, oinetako kontua edo jaztea bezalako gaiak ikutzen baditugu, uste dut Arrasatek ez duela hiriburuen inbidiarik, ezta kos-

tarenik ere.

Autoentzako bideak egunean baino egunean transitarriago daude; eta etxeen ongizatea, norberaren kanpoko mailan eta auzoena, horien mailan, hilean hilean hazkor eta armonikoa goa da udalerriaren osotasunarekiko, eta horrela aberastu egiten da hura.

Eta Ostalaritza mailan oraindik ere konplexoren baten falta somatzen jarraitzen dugun arren, kafetegi eta taberna guztiek, zaharrek eta berriek, euren aldetik ahal duten guztia egin dute mezezi dugun bezala gu atenditzeko. Dendak eta zerbitzuek kompetentzia eta seriotasuna eskaintzen dute zalantza barrik; baita horien artean aisialdi eta denporapasakoak direnek ere.

Horrela beraz, mantentzen eta objetibitateko nota honetan, ez dakigula bizarra erori eta dena aurrera. Aupa mondrauetarrak!

JOSEBA COSTANA MATA

## Chiapasekin elkartasuna

Chiapas (Mexiko) estatuan sortu den borroka, behartsuak aberatsen aurka altxatzea dela ulertu behar da; behartsia borroka da beraz.

Duela bostehun urte baino gehiagotik hona Latimerikako komunitate indio eta nekazariak jasan duten ebasketa eta baztertzeari nahiko esateko garaia da. Nahiko! bizi ahal izateko ez

jatekorik ez lur-zatirik ez dutenei pobrezia, torturak, desagertetak eta hilketak sortarazteari.

Gure ustez, indio-nekazariek altxatu izanaren arrazoiak aurrez aipatu ditugunak dira eta horregatik, lurriari eta askatasunari buruzko beraien erreindikazioak gure egiten ditugu.

Mexikoko gobernu eta armadak erabaki dute jada altxamendua zapaltzea, Askapen Nazionalerako Armada Zapatistaren bidezko eskariei erantzun ordez.

KOMITE INTERNAZIONALISTAK

ARRASATE PRESSEN  
218. zenbakian ateratako informazio baten egindako hankasartzea konpondu beharrean gaude. Almen Ikastolako ikasle batzuri buruz atera genuen albistea erabat okerra zenez, barkamenak eskatzen dizkie ARRASATE PRESSEK Almeni eta afektatutakoei.

ARRASATE  
PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan

ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE

Goizeko 9etatik 1a arte

TFNOA: 79 19 21

# Zer iruditzen zaizu San Kristobalگو hilerri berria?



**Consuelo Perez  
Etxekoandrea  
43 urtea)**

Ondo dago goikoa egitea, betiere familiei beheko hondarrak eramateko modua jaritzen badute.



**Pablo Manzano  
Kale-garbitzailea  
(60 urte)**

Oso ondo prestatuta dago. Zaharra baino modernoago. Uste dut diru hori gastatzeak merezi izan duela.



**Maria Luisa Hidalgo  
Etxekoandrea (49 urte)**

Nik ez dut gehiegi uler-tzen, baina ondo iruditzen zait; onerako bada behintzat, ondo.



**Agustin Cabeza  
Langabezian (52 urte)**

Ondo dago, eta behekoa kendu egin beharko dute. Gauza berri bat egiten diru gastatu ondoren, zertarako eduki bestea martxan?




**Luisa Apaolaza  
Pentsionista (69 urte)**

Neuretako, dauen moduen, bata bestien gañien hillek ez, horrorosue pentsetan jat, nor gañien da nor azpizen ez dakitzule.



**Jose Iza  
Fagorreko langilea  
(57 urte)**

Garesti dala, gastu larregi ein dala kanposantue eitteko. Baña behin goikue eindde, bekuek ez dauko ojeturik eta kentzie hoba.



**Narciso Parra  
Pentsionista (55 urte)**

Pobre batek ezin du han panteoirik edo ezer erosi. Dirurik ez dugunok ezin dugu ezer esan. Ondo egina dago, baina prezio garestiak ditu.



**Basilisa Lizaur  
Pentsionista (72 urte)**

Bekue ixtie ez dakitt ondo dauen; oiñ, barrixe eukittie ondo dau. Baña beien dauzenak zer? Hor familixa asko dauz.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**Begoña**  
lurrindegia

Drogeria  
Jostailuak  
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa,  
Tfnoa: 79 03 73

**LODITASUNA,  
LIPOESKULTURA,  
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

**ESTETIKA KLINIKA**

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igoalatorioa ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udalteingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburategia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 14**  
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.  
 Egunez eta gauez: Puy. Barrenkale.

**Larunbata 15**  
 Egunez 22.00ak arte: Español. Iturriotz, 17.  
 Egunez eta gauez: Guallar. San Antonio.

**Igandea 16**  
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Astelehena 17**  
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

**Asteartea 18**  
 Egunez eta gauez: Amezia. Sta. Marina.

**Asteazkena 19**  
 Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.

**Osteguna 20**  
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

**14 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Aladdin". 7etan eta 10etan.

**ERAKUSKETA**  
 Santamasak 1993 lehiaketako argazkiak erakusgai. Urtarrilaren 23rarte. Monterron Kultur Etxean. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, goizeko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ANTZERK JARDUNALDIK**  
 Gernika antzerki taldearen: "Izakun Zaharren Gitarra". Arriola Kultur Aretoa. Arratsaldeko 6etan.

**KONTZERTUA**  
 "Vivoras" talde madrildarra eta "Pop Crash Colapso" talde bilbotarra. Gaueko 9etan, Arrasateko Gaztetxean.

**KONTZERTUA**  
 "Piztiak" rock taldearen kontzertua. Elorrioko Ateneo Arriolan, gaueko 11etan.



**ALADDIN**  
 Alladin, txirotasun gorriean bizi den gazte azkar eta argiak, Sultanaren alabarekin, Jazzmin ederrarekin ezkontzea amesten du. Horretarako, haizulo batean dagoen lanpara miresgarria eskuratu behar du. Disneyren historiako filme garrantzitsunetarikoa da.

**15 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Aladdin". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ANTZERK JARDUNALDIK**  
 Catalina Erauso taldearen: "Entremeses y otras guindas". Elorrioko San Lazaro egoitzean, arratsaldeko 6etan.

**KANTU ZAHAR IKASTAROAREN HASIERA**  
 Emalea: Mikel Markez. Urtarrilaren 15etik martxoaren 5era. Arratsaldeko 4.30etatik 7etara.

**KONTZERTUA**  
 "Cuatro Clavos" taldea eta "Ehun Kilo", L.Pa aurkeztuz. Gaueko 9etan, Arrasateko Gaztetxean.

**ESKULAN IKASTAROA**

AEDko Ekin emakume taldeak antolatuta. Asteazkenean, arratsaldeko 3.30etatik 5.30etara. Emalea: Mila Akizu. Aste Santua arte.

**GARAPEN PERTSONALA**

Arrasateko Yoga Elkarteak norbere burua ezagutzeko, gataska pertsonalak konpontzea eta ongizate handiagoa lortzea helburutzat duen ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urtarrilaren 21ean hasiko da eta martxoaren 25ean bukatu. Informazio gehiago nahi baduzu dei egin 793576 telefonora.

**16 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Aladdin". 5etan 7.30etan eta 10etan.

**BATZAR OROKORRA**  
 Al Andalus elkarte kulturalaren batzar orokorra. Moterrongo hitzaldi aretoa, goizeko 10etan lehen deialdia eta 10.30etan bigarrena. Eztabaidagai: aurreko aktaren irakurketa, 93ko balantze ekonomikoa, 93ko balantze kulturala, 94rako aurrekontuak...Batzarra bukatutakoan luntxa egongo da Al Aldalus elkartearen.

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROK**

**Hauek dira hasiera doazen ikastaroak: psikologia soziala, gazte taldeei zuzendua bereziki, 50 orduko iraupena, 4 ordu astean, goizeko 9etatik 11etara. Ikastaro honek alde batetik zati teorikoa izango du eta bestetik, lan praktikoak ere egingo dira. Eskulan tailerra, besteak beste portzelanazko panpinak egiten eta ohialean margotzen irakatsiko da. Astelehenean 9etatik 12etara, 30 orduko iraupena. Informazio gehiagorako dei egin 790459 telefonora.**

**PINTURA ERAKUSKETA**

Bergarako 29 margolariren margoak ikusgai. Harresi Aretoa, urtarrilaren 23rarte. Orduetgia: lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

**17 ASTELEHENA****ZINEA**

"Aladdín". 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: Etorkizuneko Telebista.  
Hizlariak: Ines Intxausti, Egunkariako kazetaria eta Edorta Arana, EHUko irakaslea. Monerroneko hitzaldi aretoan, arratsaldeko 7etan. AEDk antolatuta.

**BILERA**

Pobreziaren aurkako taldearen bilera. Arratsaldeko 6.30etan, udaletxean.

**KONTZERTUA**

Migel Baselga pianojolearen kontzertua. Amaia antzokian, arratsaldeko 7etan. Sarrerak, ikasle eta bazkideentzat doain eta gainontzekoentzat 500 PTA.

**18 ASTEARTEA****ZINEA**

"Aladdín". 7etan eta 9.30etan.

**BATZAR OROKORRA**

Besaide Mendi Elkartearen batzar orokorra. Arratsaldeko 7.30etan elkartearen lokalean. Aztergaiak: aurreko aktaren onarpenak, 1993ko aktibitateen balantzea, 1994ko aktibitateen azalpena, batzar berezia: lehendakari eta junta berriaren hautaketa.

**19 ASTEAZKENA****HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ANTZERK ARDUNALDIAK**

Intrepido taldearen: "Acalentarse". Elorrioko Ateneo Arriolan, arratsaldeko 5etan.

**HITZALDIA**

"Maitasuna hirugarren adinean". Elorrioko Zaharren Egoitzean, arratsaldeko 6etan.

**20 OSTEGUNA****SANTA AGEDA KOROA**

AEDko Gazte Mobidiek antolatuta Santa Ageda koroa batzeko koroa aterako da. Koroan parte hartzeko entsaiuak, urtarreko larunbatean arratsaldeko 7etatik aurrera AEDko lokaletan egingo dira. Koroan parte hartu gura baduzu, badakizu nora jo.

**GERRA OSTEKO BERTSO GAIJARTZAILEEI OMENALDIA**


Bertsolari elkarteak antolatuta. Gerra osteko 9 gai jartzaile omenduko dira. Horien artean Joxe Manuel Arriola arrasatearra. Omenaldia Donostiako Victoria Eugenia egingo da datorren urtarrilaren 23an. AEDk autobusak antolatu ditu bertara joan nahi dutentzat. Autobusa Gari baitik aterako da goizeko 9.45etan. Prezioa 800 PTA. Izenemateak AEDn eta HIREn. Beharbada ondoren bazkaria izango da, honetarako dei egin AEDra.

**EGUNKARIAREN EUSKAL TONBOLA**

Zki. Saritua: 646.153.  
Otsailaren 1a baino lehen azaltzen ez bada: 510.687. Azken hau otsailaren 14a baino lehen azaltzen ez bada, beste hau: 747.045.

**II. BERTSO PAPER LEHIAKETA**


Lehiaketak hiru maila izango ditu: haurrak 14 urte artekoak, gazteak 25 urte artekoak eta helduak 25 urtetik gorakoak. Haurren maila Bizkaira mugatuko da eta beste biak Euskal Herri osora. Partaide bakoitzak gehienez bi bertso sorta aurkez ditzake. Gazte eta helduen lan sorta bakoitzak zortzi bertso edukiko ditu gutxienez, eta gehienez, hamabi. Gaiak eta neurriak libreak izango dira. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31an bukatuko da. Lanak Bizkaiko Bertsolari Elkartera bidali behar dira: Lekeitioko Ikastola, Atea z/g. Informazio gehiago nahi izanez gero, dei egin 6841551 telefonora.

**NOR DA MIGUEL BASELGA?**

Pianojole espainiarra, 1966an jaioa zen Luxenburgon. Belgikan egin zituen piano ikasketak. Europako hiriburu garrantzitsuetan eskeini ditu kontzertuak. 1991an Espainian bere burua ezagutarazten hasi zen. Madrileko Auditorio nazionalan eta Juan March fundazioan kontzertuak eman ditu. Astelehenean, arratsaldeko 7etan, Amaia antzokian.



## Une honetan zein bide jarraitu beharko litzateke Euskal herria baketzeko?



**Andoni Urkizu**  
Deba Garaiko Garraixi  
isileko arduraduna

**E**uskal-Herrian bakea lortzeko derrigorrez lehenik ETAK hiltzeari utzi beharko lioke, hilketek ez dute ezertarako balio. Hilketen aurka gaude gehienok, beraz, ETAK armak utzi behar ditu. Inork ez du beste bati bizia kentzeko eskubiderik, bizitzak errespetatu egin behar dira. Beraz, bakea lortu ahal izateko hori izan beharko eman beharreko lehen pausoa.

Ondoren, guztiok adostasun batetara iritsi beharko ginatke, eta hau demokrazian ditugun instituzioetan hitzeginez lortuko dugu. Instituzio hauetan noski,

guztiantzako dago lekua. Demokraziak, geure ideiak elkarrizketaren bidez azaltzeko aukera ematen digu.

Garraixi Isila, jendea sentsibilizatzen ahalegindu da, eta hau arrakastaz lortu du. Jendeak beldurra galdu eta bere borondatea azaldu du. Horri esker argi dago jendeak zer eskatzen duen. Gainera, jarrera aldaketa honek bakerako bidean ere laguntzen du.

Elkarriren gainean haxe esango nuke: nire ustez oraindik batzuk ez dakite Elkarri zeren inguruan jaio den. Elkarrik HBren bidea jarraitzen duela uste dut, HBren barruko beste sindikatu bat bezalakoa da. Garraixi Isilak hilketak guztiak kondenatzen ditu, bai alde batekoak zein besteakoak. Horregatik Garraixi Isilak ez du inongo loturarik alderdi politikoekin. Elkarrik berriz, ez ditu alde bietako hilketak indar berberaz gaitzesten.

**E**lkarrikoon ustez, lehenik eta behin hiritar guztiok, gatazkak konponbiderik baduela sinetsi behar dugu. Honetaz konbentziturata egotea ezinbestekoa da, bestela ezingo genuke aurrera egin. Era honetan, gatazkari benetako konponbidea ematea da gure helburua. Hori lortzeko, pentsakera desberdina dugunok elkarrekin hitzegiten jartzea, jarraitu beharreko bidea dela uste dugu. Gatazkan murgildurik dauden agente guztien arteko elkarrizketaren bidez lortuko da bakea.


Euskal-Herrian gatazka egoera sakona bizi dugu eta gero eta gehiago, iritzi desberdineko taldeek tinko eusten diete euren ideiei. Elkarrizketak berriz, besteak ere arrazoia izan dezakeela pentsatzen lagun diezaiguke. Hain zuzen ere, haxe da elkarrizketan izan behar dugun jarrera. Guk garbi dugu, hitzeginez bakea lortzeko bidean sartu eta honela akordio batetara helduko garela.

Guzti honen inguruan, ondo legoke pentsakera desberdinetako pertsona ezagunen hitzaldiak antolatzea, bakoitzak bere pentsakera eta irtenbideak proposa ditzan. Honela, herritarrok batari eta besteari entzunez geure iritziak osotuz joan gaitzetzke.

Azkenik, Garraixi Isila eta Elkarriren artean dauden desberdintasunen gainean esan beharra dago, gure eginkizuna ez dela beste taldeekin ditugun desberdintasunak bilatzea. Desberdintasunak ez, baina berdintasunak aurkitzen ahalegintzen gara. Elkarlanerako nahia egokiagoa dela uste baitugu.



**Edurne Mujika**  
Arrasateko Elkarri  
taldeko partaidea



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

*ESLU*

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XAHIO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



**San Andresen hilda**

70 urteko gizon bat, Juan Antonio Arellano Moyano, hil egin zen astearte goizean lehiotik jausita. Ezbeharra goizeko 7.50etan gertatu zen San Andres auzoan, Leintzibar kalean. Gurutze Gorriak eskualdeko ospitalera eroan zuen, baina hilda ingratsatu zuten.

**Zapatisten alde**

Arrasateko Komite Internazionalistak antolatutako enkartelada egin zen astelehenean, Mexikoko Chiapas estatuko matxinadari elkartasuna adierazteko. Chiapasen Armada Zapatista eratu duten indigena eta nekazarien borrokaren alde egin nahi izan dute Komite Internazionalistek ekintza horrekin, eta Mexikoko gobernu eta armadak eragindako errepresio latza ere salatu dute.

**Txikilandia**

Gabonetako oporrak aprobetxatzeko, eta urteari ongi-etorria emanez, umeei Txikilandiarekin disfrutatzeke aukera izan zuten. Urtarrilaren 2tik 5era, Musakolako kiroldegian



**Hiru Erregeen bisita**

Errege egunaren bezperan, Erregeen kabalgata izan genuen Arrasaten. Hiru Erregeen segizioak Iturbide egoitzatik irten zuten arratsaldeko 7etan, eta erdialdeko zenbait kale igaro ondoren, Monterrongo parkean amaitu zuen bere ibilbidea. Ekitaldiari bukaera emateko, Monterronen jarritako jaiotza bizidunari euren omena eskaini zioten Hiru Erregeek, eta, kasu honetan, Jesustxoren papera egiten ari zen Jon Zubizarreta Bolinaga hiru hilabeteko haurra izan zen Erregeen eskaintzaren protagonista.

egon zen Txikiladia eta dentarik zegoen han: ohe elastikoak, puzgari erraldoiak, zezen mekanikoa, rokodromoa, igerileku prestatua, tailer ugari ere bai (makilaia, kareta, paper birziklatua). Berrikuntzen artean, promoziorako konposatutako abesti polita. Bosgarren aldia izan da Udalak Txikilandia antolatutakoa. Laguntzen, AED,

Besaide eta Igeri taldeko 20 bat begirale ibili dira.

**Rock taldeak eta Gobernu Batzordea**

Iazko lehen Gobernu Batzordean, Heriotza musika taldearentzat dirulaguntza onartu zen. Rock taldeak 100.000 PTA jasoko ditu bideo-klip bat grabatzeko. Udalak laguntzak

eskaintzen dizkie askotan herriko rock taldeei, baina lehen aldia da subentzio hori bideo bat egiteko ematen dutena. Gobernu Batzorde hori joan den astean egin zen, hilak 3. Aste honetan ez da izan Batzorderik.

**JAIOTZAK**

- Irune Salterain Belinchon. Abenduaren 19an.
- Igor Murgoitio Bengoa. 26ean.
- Ainhara Carrasco Romero. 28an.
- Alvaro Sanz Gonzalez. 30ean.
- Ander Ezkurra Rodriguez. 25ean.
- Elene Gallastegui Uribe. Urtarrilaren 3an.
- Asier Amuchastegui Abad. 8an.

**HILDAKOAK**

- Josefa Ganchegui Azcarate Ascasua. Abenduaren 28an. 77 urte.
- M<sup>a</sup> Dolores Rodriguez Habas. Urtarrilaren 1ean. 76 urte.
- Pedro Perez Etxebarrieta. 2an. 76 urte.
- Cristobal Uribetxebarria Bian. 3an. 80 urte.
- Teresa Intxauspe Perez. 4ean. 74 urte.
- Santos Landaluze Goikolea. 4ean. 75 urte.
- Alberto Zabaleta Galdos. 4ean. 71 urte.
- Isacio Lopez Puertas. 7an. 74 urte.
- Braulia Petralanda Arregui. 7an. 83 urte.
- M<sup>a</sup> Carmen Juldain Laspiur. 5ean. 78 urte.
- Eusebio Gallastegui Uriarte. 8an. 74 urte.
- Juana Igarza Iñarra. 10ean. 89 urte.

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-  
JARTZEAK  
Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84



**PAZI-OLA**  
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2,  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



MALEN ERRASTI \*

## Transexualenganako hurbilketa bat...

**Gure** mugimendu feministan, transexualak ezezagun handiak, ageri ez direnak izan dira. Errealitate horretara hurbiltzea, ezagutzea eta horretaz galdetzea zaila egin zaigu. Azkenaldian hurbildu ahal izan gara, emakume? gizakume? edo hirugarren sexu, transexual? sektore honetara. Talde horrek gizarte mailan diskriminazioaren arabera gizarte honek jarri nahi dien identitate sexualaren menpe egon nahi ez dutelako. Azken finean, "emakume arima gizakume gorputzean" edo alderantziz dutelako.

Transexualitateari buruz, orokorrean, oso gutxi dakigu. Jendeak saltsa handia du eta oraindik nahastu egiten dira homosexualitatea, transexualitatea eta hermafroditak.

Euren arazo espezifikoak

zerikusi dexte du gurea bezalako askapen mugimendu batekin, hain zuzen ere, erreibindikazioko ardatza askatasun sexuala, plazerra lortzea, eta norberak bere gorputzarekin nahi duena egitea delako, kanpotik ezarritako arau edo eredueta makurtu barik. Baina gainera, transexualekiko harremanak, eta elkar hobeto ezagutzekoak, emakumezkoaren generoaren identitatea ematerakoan agintzen duten mekanismoetan sakonduz jarraitzen lagunduko digu. Horretarako, emakumeon gizarte-insertsioa era ezberdinetatik abiatu beharko genuke, adina, etnia jakin batekoa edo bestekoa izatea, gizarte maila jakin batekoa edo beste batekoa, aukera sexual bat edo bestea, ideia erlijiosoa izan edo ez, ideia politiko jakin batzuk izatea eta beste hainbat faktore tar-

teko dela, eta guzti hori, aurrez jarritako genero-identitate monolitiko eta egonkor bat, denok berdinduko gaituena, dagoela aditzera eman barik.

Gure ustez askatasun sexualaren defentsa, sexualitatearen adierazpenaren aniztasuna onartzetik abiatzen da, gizartean ez dira berdintzat hartzen eta. Balore eskala baten arabera daude jerarkizaturik, eta mailaketa horretan heterosexualitatea da gorengo maila eta transexualitatea mailarik bajuean.

Jerarkizazio hori bortizki gertatzen da transexualen artean: baldintza egokiak betetzen dituen lanpostu bat lortzeko zailtasunak; prostituzioa da euretako askorentzat irtenbide bakarra, eraso fisiko eta ahozkoak; hiritar gisa dituzten eskubideetan diskriminazioa, legearen aldetik babesik eza, eta baita jende "aurrerakoiaren" aldetik mespretxuzko begiradak ere, oraindik ere "bitxo arrarotzat" jotzen dituzte eta.

\* ARRASATEKO EMAKUMEEN ASANBLADAKOA

## USTEAK USTE

IGP

**Edo Informazio Gune Partehartzaileak. Esku biak beteko inbentoa ekarri digute, Europariek europarretetik ekarri ere, kamino bat zelan egin erabakia hartzeko. Maltzaga-Urbinaren inguruko auziak inportantea behar du oso, komunikabide handiak ere akordatu egin dira eta aran estu honetan ere zerbait mugitzen dela. Edo erakunde handiak hemen zer gertatzen den peskisan daudela.**

**Aste honetan bildu da lehen lagun taldea ahaleritzira (ahaleritzira?) aukeratuta, entzun-entzun egin eta gero herriaren iritzia ordezkariz izateko. Oso ondo. Esperantza eman du erabakiren bat eman dezaketela pentsatzeak. Baina erabaki-gaitasunik bai ote inisial asmatu berri horrek? Ala erabaki beharrekoak erabakita daude? Ezetz sinistu nahi nuke, pena litzateke bestela halako asmakizun ideala hain gauza gutxitarako izatea, kunplimentu huts bihurtzea. Izan ere, kunplimentu hitzak gaztelaraz jatorri esanguratsua du: cumplomy-miento. Berbenir...!**


ARANTZAZU LOIDI

.....  
**ELEKTRONIKA  
 ARTIKULUEN  
 SALMENTA**  
 .....

**BAZAR**  
 TOKI ON


J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Elektroinjekzio  
 Zerbitzua



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
 ARRASATE



Interbentzio Gunea Aita Menni ospitaleko lokaletan bildu da astean zehar.

## Maltzaga-Urbina: IGPak Arrasaten hasi dira biltzen

Aste honetan zehar bildu da Arrasaten (Aita Menni ospitalean) Maltzaga-Urbina proiektuaren inguruko lehen Interbentzio Gune Partehartzailea (IGP). Lehen IGP hau Gune pilotoa izan da, autopista proiektuak ukitutako eskualde guztietako jendea izan da bertan. Txostenak ondo ulertzen diren eta eztabaidak ondo bideratzen diren ere konprobatu dute antolatzaileek, LES-Gizarteaz gabineteko soziologok.

Hurrengo guneak ere Arrasaten izango dira, Deba Garaiko jendearentzat bereziki antolatuak. Gero, eztabaida prozesua beste eskualde batzuetara joango da, apiril aldera erabaki bat hartu arte. Erabaki hori kontsultiboa izango da soilik, administrazioak aurreratu duenez.

Guneen antolakuntzan azken orduko polemikaren bat ere gertatu zen, talde ekologista batzuek neutrala izan behar zuen aditu bati betoa ezarri ziotelako. Izan ere, ustezko injineru neutraletako bat, Castor Garate,

autopistaren aldeko plataforma bateko txostengileetako bat zen. Eguzki taldeak egoera hori publikoki salatu eta ordu gutxira, Gizarteaz gabinetek Injineru Kolegioaren aditustigantza ezabatzea erabaki zuen. Horren ondorioz, aditu neutral berriak bilatu behar izan dituzte aste honetan.

Bestetik, Eusko Alkartasunak eta Euskal Ezkerrak auziari buruz duten iritzia plazaratu dute aste honetan. EA eta EUEk autobia egitea proposatzen dute, peajea izatekotan, ardatzak Deba Bailarako biztanleentzat abantaila gutxi ekarriko lukeelakoan. Peajeak bailarako gidariak "uxatu" egingo lituzke eta, ondorioz, ohizko errepideak ia orain bezala egongo lirakeke, autoz gainezka.

Horrez gain, EA eta EUE ekologia bereziki zaintzearen alde daude, N-1a indartzearen alde ere bai, eta IGPetako prozesuaren emaitza onar dadin eskatzen dute. Bi alderdiak batera parte hartzen ari dira IGPetan, ikuspuntu hauetxeekin.

## Pobreziaren aurkako taldea

Pobreziaren aurkako taldeak plataforma iraunkor bezala finkatzea erabaki du. Abenduan egindako deialdi baten ondoren, kontzentrazioa egin zen, eta orain, talde bezala inizatiba berriei ekitea pentsatu dute, asteartean udaletxean egindako biltzarrean. Pobreziaren aurkako taldekoen iritziz, krisi garai honetan sektore pobreenak dira kaltetuena, eta pobreziak hedatu besterik ez du egiten. Biltzarrean azaldu zuten, ikusita dago Arrasaten arazo laboral puntual batzuetan gertatu izan direla mobilizazioak; baina hala ere, halako mugimendu iraunkor baten premia ere nabarmendu zuten, bestela jendea pasitibitatean erortzen omen delako. Astelehenean, arratsaldeko 6.30, talde finkatu gisa deitutako lehen biltzarra izango dute udaletxean.

## Euskadiko Kutxak irabaziak

Euskadiko Kutxak (Kaja Laboralak) 8.223 milioi PTako irabaziak izan ditu 1993an, aurreko urtean baino %8 gehiago. Hipoteka maileguen arrakasta nabarmendu dute erakundeko arduradunek 93ko datu positiboaren artean. Beste balore batzuek behera egin dute. Adibidez, enpresetan 2.953 milioi PTA gutxiago inbertitu ditu Euskadiko Kutxak.

## Umeentzako moda



Ferrerias kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Gesalibarren ez dira ikusten ez ATB ezta Espainiako hiru kate pribatuak ere.

# Gesalibarren ATB ikusi ahal izateko gestioak

Gesalibarko auzo alkatetzak egindako eskaera bat onartu berri du Udalak, telebista repetidorea jartzeko aurrekontua datorren urtera luzatzeko. Gesalibarren —goikaldeko baserriren batean ez bada— ez dute Arrasate Telebista ikusten, ezta Espainiako hiru kanal pribatuak ere (Antena 3, Tele 5 eta Canal Plus).

Gesalibarko bizilagunak aspalditik dabilta hori konpondu nahian udalarekin, baina orain artekoan, kale. Itxura denez, auziarren oinarrian, frekuentzia eta baimen arazoak daude Eusko Jaurlaritzarekin, repeti-

doreak jartzeko eskumena ez baita Udalarena, Jaurlaritzarena baizik. Gainera, Udaleko zerbitzu arlotik adierazi digutenez, aukera guztiak aztertzen ari dira ezer erabaki aurretik. Aukera horietako bat auzora kablea luzatzea izan liteke.

Bestetik, Gesalibarko ordezkariak eta Udala inguruko bideak auzolanean egiten segitzea aztertzen ari dira. Dagoeneko, Enuzketatik Baztargainerunzko bidea auzolanean dago eginda, eta bigarren tramo bat egitekotan daude orain, Elezgaraitik Enuzketaraino.

## Gurea zinemaren terrenoak

Gurea zinema zegoen tokian (Gaztetxearen aurrean, gaur egunean halamoduzko aparkalekua) etxeak eraikitzea erabaki du Udalak, eta arau subsidarioak behar horretara egokitu dituzte, 1993ko azkenengo plenoan hartutako erabaki batez. Gidariarentzat eragozpen bat izango da erabaki hori, erdiguneko aparkatzeko zailtasunak arintzeko oso lagungarri izan da eta Gureako hutsunea.

## Eroskiren hedapena

Eroski kooperatibak 225.000 erosketa-txartel banatu nahi ditu 1994eko ekainerako. Aurten martxan jarri dituen txartel hauek oso harrera ona izan dute bezeroen artean, baina ez dute Eroskiko arduradunek nahi zuten inplantazio zabala hain azkar lortu, batez ere arazo teknikoengatik, zentroak eta aparailu informatikoak egokitu beharragatik. Bestalde, supermerkatuen sarea Portugalera zabaltzeko planak ere ezagutzera eman ditu Eroskik.



# URONDO

## elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



San Kristobal ofizialki inauguratu zen eguna, azaroaren 2a.

## Aldaiko panteoiak erabiltzeko luzapena erabaki da

Urtearekin batera hasi dira San Kristobalgo kanposantu berriko enterramenduak. Hala ere, ez dira eten Aldaiko hilerri zaharrekoak. Izan ere, Aldain panteoiak dituzten familietakoei luzapen bat eskaini zaie, eta euren senitartekoak panteoietan enterratzeko baimena izango dute, gutxienez otsailaren 28a arte. Panteoi-jabeek proposamen bat erredakta dezaten eskaini die Udalak luzapen hori. Panteoi-jabeak uda baino lehena gotik ari ziren Aldain enterratzen segitu ahal izatea eskatzen, baina Udaletik ez zuten erantzun handirik jaso. Azkenik, azaro amaieran, Udalak proposamen konkretu bat erre-

dakatu zezaten eskatu zien jabeek, eta azkenean, denbora gutxi zegoela eta, luzapena erabaki da proposamen hori iritsi bitartean.

Panteoirik ez dutenez ez dago luzapenik, eta jada San Kristobalen dira ehorzketak. Enterremandu hauek egiteko araudi bat dago indarrean dagoeneko. Udalak libre utzi du hiletak gorpurik gabe egiteko aukera, hiri batzuetan egiten duten bezala, baina bestela, familiak hildakoaren kutxa hiletetara eroan nahi badu, ondoren gorpua San Kristobalera igoko da, eta bertako deposituan gordeko dute hurrengo egunean enterramendua egiteko.

## Ikastetxeetako datu estatistikoak

- Hezibide elkarteak
- ikasturte honetako Deba
- Garaiko eskolen estatistikak eman ditu ezagutzera.
- Zenbait datu azpimarratzeko bezalakoak dira. Batetik, demografiaren jaitzieraren ondorioz, duela 10 urte baino 4.370 ume gutxiago daude eskolaratuta (% 35,6 gutxiago). Bestetik, 2 urteko haurren eskolaratze tasa % 35ekoa izatetik bikoiztu egin da.

Euskalduntze prozesuari dagokionez, A eredia desagertuta dago eskolarraren eta lehen mailatan, eta B eredu elebiduna ere atzeraka doa. D euskaldunaren mesedetan. Irakaskuntza ertainean, aldiz, A eta D ereduaren artean daude banatuta ikasleak, baina pentsatzekoa da eredu euskaldunak aurrera egingo duela. Era berean, irakaskuntza ertainetan, Lanbide Heziketa I ematen zuten zentro askotan orain Batxilergo Orokorra ematen dutela igertzen da, eta Lanbide Moduluen garrantziger eta nabarmenagoa ere ikusten da.



**ZENBAKI**  
Aholkularitza

*Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak*

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39

**ARTOLA  
KOMERTZIALA**

Zerkaosteta, 3  
Tfnoa: 79 14 40  
ARRASATE



**ZARRAOA  
EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE




**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



Urtarrilaren 3an, Goikobaluko 8 koralista eta Parrokiako Koruko beste 4, Toulou-sera joan ziren. Zertara? Donostiako Orfeoiaz eta Billboko Soziedade Koralaren laguntzaz Verdiren "Requiem"ean abestera. Antza denez, mondraitarren ahotsak mundu guztian zehar entzuten dira **Maidier Ruiz,**

**Iñaki Maidagan, Iñaki Olaizola, Julio Iriondo, Kar melo Heriz, Juan Garai, Patxi Nafarrate, Eugenio Etxebeste, Mikel Arregi, Miren Olazabal, Anuska Ezkurra, Juan Bautista Agirre, Juan Jose Del Valle eta Jose Mari Mendizabal.**

**Ainhoa Arkauz oñatiarrari, erregeek opari galanta utzi zioten Arrasateko Eresi dendan. Ainhoa diskaren bat erosi zuen Eresin eta 30.000 PTAko zozketan sartu zen bere izena. Asteartean Eresin izan zen eta 30.000 PTA, diskatan gastatu zituen bertan.**




Abenduaren azken astean, Marianisten XVII. olimpiadak burutu ziren Cadizen. Almenetik 108 jokalarik eta 20 arduradun abiatu ziren hara. Futboleak, saskibaloian eta atletismoan sari ugari lortu zuten. Horietako bat argazkian ageri diren saskibaloitako taldeko neskek lortu zuten. Bigarren geratu ziren hauek eta horregatik txanpainaz ospatu zuten.

**• ARTEA •**  
Eskulanak eta lientzoak  
**ENMARKAZIOAK**  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak  
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

**BASABE  
JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAETA

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria  
Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99



Errege egunean benetako Jesus Haurtxoa eduki genuen. Maritxu Kajoi egunean jaiotako **Jon Zubiza-**

**rreta Bolinaga** arrasatearra izan zen jaiotzean izan zen umea. Oso ondo portatzen omen zen ume polit hau.

Oñatiko bizilagun bat, Arrasatean izan zuen istripu bategatik lekuko bila ari da. Istripua astelehenean goizeko 7.50ak aldera gertatu zen Roneo inguruan. Itxura denez, oñatiarraren Seat Ibiza zuria atzetik jo zuen kamioi batek eta gero ihesi joan zen. Ikusi bazenuen dei egin, 781557 telefonora (Rosa Mari).



**Urtea aspalditxo hasi genuen arren, gogora dezagun gogoz hastea erabaki zutela zenbaitzuk. Horregatik mendiko botak jantzi eta Udalaizera igo zuten urte berri egunean. Bide batez aldapan utzi zituzten gaueko turroi eta txanpainak. Urteari gogoz ekiteko behintzat ez dago txarto.**

## IZEN PROPIOAK

● **Roberto Elorza**, 39 urte, arrasatearra, Euskadiko Kutxak Eskoriatzan duen bulegoko zuzendari izendatu dute. Aurrez Antzuolako bulegoko zuzendari izan zen. Jabier Armendarizen ordeztu hasi da lanean.

● **Aukea** sariak honako hauek eskuratu dituzte: **Arrasateko nesken futbol taldeak**, Gipuzkoako txapelidunak direlako. **Arrasate Telebistak** kirolari eskeintzen dizkion saioengatik. Eta **Izaskun Igllesiasek**. Izaskun aretxabaletarrak 11 urte ditu eta Almenen 6. maila ikasten ari da. Euskadiko gimnasi erritmikoko txapelketan bigarren geratu zen.

### Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 57

### Mendi taberna

#### MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54

### ITSASKI

#### ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

### Monte taberna

Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

# MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48

## LORTAMENDI KIROLAK



• TXANDALAK %30

• TXAMARRAK %30

**BEHERRA PENAK**

• SUDADERAK %30

• FORRO POLARRAK %20

• TXANDALEKO FRAKAK %30



# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Berriro martxan!

Gabonetako atsedenen ostean, asteburu luze batekin berrekin zion Zaldibarko futbito txapelketak lehiaketari. Errege Eguneko zubia aprobetxatuz, lau egunez luzatu ziren partiduak, eta horri esker, partidu guztiak Zaldibarren jokatzeko aukera egon zen. Lehenbiziko aldia da hori gertatzen dena.

Bestalde, emaitzei dagokionez, talde indartsuek hor segitzen dute, goian tinko, eta beste makina batek

esperantza guztiak gaiduta, atzekaldean itota. Zazpi partidu geratzen dira lehen fasea amaitzeko, eta gauzak nahiko argi daude mordoxka batzuentzat.

Bestetik, atsedenen ondoren, intzidentziaren batzuk ere gertatu izan dira. Aste honetan ez dago puntu kenketarik, baina Pepelus taldeko jokalar bati bi partiduko zigorra ezarri diote, eta Zuloak taldeak abisu bat jaso du.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

**MENDIA**

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59

*Felipe*  
**Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	12	12	0	0	89	15	24
TRIKITI	12	11	0	1	63	15	22
ARLUTZ	12	9	2	1	57	19	20
JEY JULIWER	12	8	3	1	50	19	19
ZOTZ	12	8	2	2	42	35	18
SOKOAKOAK	12	8	0	4	57	40	16
UGLYS TXINATO	12	7	2	3	53	32	16
ANBOTOSTE KT	12	6	2	4	50	24	14
BERANGO SUKALD.	12	6	1	5	39	30	13
BIZKORRAK AVE. T.	12	4	3	5	34	38	11
WHISKERIA LINDE	12	4	1	7	34	62	9
KOXKAS	12	4	1	7	31	39	9
IKATZ	12	3	2	7	40	61	8
RESAKAS	12	2	3	7	30	45	7
FRAGUEL GOL	12	2	3	7	23	35	7
EUSKAL INDARRA	12	3	0	9	48	61	6
AUF DEM KOFFER	12	3	0	9	24	49	6
ALLA KUIDAUS	12	3	0	9	23	66	6
BAYERN LENITZ	12	3	0	9	18	56	6
ETXE MOBILIARIO	12	1	1	10	24	58	3

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	12	10	1	1	60	17	21
LOS HEREDIA	12	10	1	1	47	15	21
NABARROS	12	9	1	2	48	21	19
MIKELOS	12	8	1	3	46	22	17
ARR. KRISTALDEGIA	12	7	2	3	44	27	16
KAKAJAURI	12	6	4	2	37	23	16
PEPELUS	12	7	1	4	54	28	15
MOTZ	12	6	1	5	51	32	13
TXOKO TABERNA	12	6	1	5	25	29	13
ADELAIDA HAIZEA	12	4	3	5	30	37	11
LOS DALTON	12	4	2	6	39	44	10
KIRTEN TROPEL	12	4	2	6	25	37	10
HIREI	12	4	2	6	34	40	10
FOTO IMAGEN	12	3	3	6	29	40	9
MZK GANBELAS	12	3	2	7	31	36	8
POTOSORRI	12	4	0	8	26	29	8
SIBILIUS ROVER	12	4	0	8	19	30	8
LEYA	12	3	1	8	35	67	7
BORROCKN ROLL	12	3	0	9	30	61	6
CORINTO TABERNA	12	1	0	11	22	91	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	12	12	0	0	84	31	24
DANOK LAGUN	12	7	5	0	35	17	19
ZULOAK	12	8	2	2	44	27	18
ARR. KIROLAK	12	9	0	3	50	30	18
LEINTZ GARAGAR.	12	8	1	3	52	20	17
IRATI STS	12	7	2	3	53	27	16
BUKANAK	12	7	2	3	50	26	16
TRONKOTEAK	12	7	1	4	37	37	15
ALPEN KRAUSSER	12	7	1	4	54	62	15
BETRAYER	12	6	2	4	52	33	14
EXC. LETE	12	3	5	4	32	34	11
GANBELAS	12	5	0	7	34	40	10
OJO AVISORE	12	3	3	6	46	54	9
NOTXINGAN FLO.	12	3	3	6	37	50	9
DIEGO ANTONIO	12	3	1	8	29	41	7
OOOLE	12	3	1	8	33	60	7
FANCY BOIS	12	2	2	8	32	50	6
KOPYPREST	12	2	1	9	29	53	5
MONTERREY Z.B.	12	1	1	10	31	66	3
ATXANTA KE TE...	12	0	1	11	23	79	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULUS	12	10	2	0	96	28	22
POTROAK LORATEGI	12	9	2	1	60	29	20
TOVARIXTX	12	9	2	1	48	25	20
AC SURCOS	12	9	1	2	52	28	19
TUTTIFRUTI	12	8	3	1	40	34	19
CARBUROS	12	7	4	1	42	22	18
REVOLUTION ROCK	12	9	0	3	53	27	18
LASO ARREGI	12	7	1	4	45	37	15
FRANCISCANERR	12	7	0	5	58	44	14
KRISKIBALDA	12	5	3	4	37	28	13
GURE LEKU	12	5	1	6	41	42	11
NUEVO TABERNA	12	5	1	6	31	36	11
MACCABI DE LEV.	12	4	2	6	32	40	10
LOS DIMY	12	2	4	6	31	34	8
SOLANO 7 MARES	12	3	2	7	36	68	8
BODISCA	12	2	1	9	24	45	5
ILUNA TABERNA	12	2	1	9	27	84	5
EZKINAKO HONTZAK	12	1	0	11	21	71	2
KOAK LAIT	12	1	0	11	22	51	2
ELISABETH	12	0	0	12	26	71	0

**EPELDE**  
argazki denda  
Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78

**ARGI PLASTIC**  
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...  
• Lantegitik zure ebekera zuzenean  
**Eska ezazu aurrekontua  
konprometzu barik**  
Erakusketa berria:  
Kanpatorpea, 2  
(Parrokia ondoan)  
ETORRI IKUSTERA!  
Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

**M**  
**MIKEL ELORZA ETXEBARRIA**  
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekaria  
Arrisku gerentea  
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.  
Boulevard, 11 5º-A  
Tfnoa: 43 04 14  
Fax: 43 11 01  
20.003 DONOSTIA  
Erdiko kale, 4 Behea  
Tfnoa-Fax: 77 13 09  
20.500 ARRASATE

**Garaiko perretxikoak urte  
guztian zehar!!**  
**RUTH  
GATZAGA**  
Olarte kantola. Tfnoa: 79 59 57  
ARRASATE  
• Eguneko menua  
• Asteburuetan menu berezia  
• Paregabeko karta



**Partidu politak daude iragarrita asteburu honetarako. Batetik, antolatzaileen arteko derbi bat, Kriskibalda - Revolution Rock (babajana jokatzenean dute gainera). Beste partidu interesgarri batzuk: Irati - Leintz Garagardotegia; Anbotoste - Sokoakoak; Bukanak - Zuloak, eta Adelaida - Los Heredia.**

**BELARRIRA**

◆ **Zuloak-i abisua.**  
Baloiazen bila ez joateagatik, abisua jaso du Zuloak taldeak. Euren txanda zenean, baloia kamioi baten azpira sartu zen, eta Zuloakoek ez zuten hartzerik nahi izan, jokalaria "bizkarrean min hartzeko" beldur omen zelako. Hurrengoan, zigorra.

◆ **Oporretatik bueltan.**  
Oporrak zirela eta, beldur ziren antolatzaileak ea taldeak aurreko asteburuko partiduen berri jakingo ote zuten, eta jendea puntual etorriko ote zen. Azkenean ez zen inongo arazorik izan, eta partidu guztiak normaltasunez jokatu ziren.

◆ **100. golaren bila.**  
Txapelketako talderik goleatzaileenak, Zulus-ek, 100 goleko marka hausten lehena izateko aukera dauka asteburu honetan. Orain arte 96 sartu dituzte, eta hurrengo partidua, partidurik irabazterik lortu ez duen Elisabeth-en aurka daukateenez, zifra biribil hori gaitutiko dutelakoan gaude.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Jey Juliwer 12 - Whiskeria Linde 2  
Fraguel Gol 2 - Resakas 5  
Etxe Mobiliario 3 - Suministros Ugarte 12  
Berango Sukaldeak 4 - Uglys Txinato 6  
Auf dem Koffer 3 - Zotz 6  
Anbotoste KT - Trikiti 4  
Alla Kuidaus 0 - Sokoakoak 14  
Arlutz 9 - Kokkas 1  
Bayern Lenitz 2 - Ikatz 6  
Bizkorrak Avenida Tab. 7 - Euskal Indarra 3

**C TALDEA**

Los Dalton 3 - Potrosorri 2  
Kirten Tropel 0 - Mikelos 10  
Hirei 1 - MZK Ganbelas 3  
Fosforos 5 - Pepelus 4  
Txoko Taberna 2 - Sibilius Rover 0  
Arrasate Kristaldegia 4 - Nabarros 5  
Adelaida Haizea 5 - Motz 6  
Corinto Taberna 0 - Los Heredia 9  
Borrocn Roll 6 - Leya 10  
Foto Imagen 1 - Kakajauri 7

**B TALDEA**

Irati STS 8 - Tronkoteak 2  
Fancy Bois 3 - Leintz Garagardotegia 6  
Diego Antonio 1 - Notxingan Florest 5  
Bukanak 5 - Ooole 5  
Atxanta ke te merece 3 - Zuloak 5  
Argi Ibili 8 - Ojo Avisore 5  
Alpen Krausser 7 - Monterrey Zubi Bel 5  
Arrasate Kirolak 8 - Kopyprest 2  
Betraye 2 - Ganbelas 3  
Danok Lagun 1 - Excavaciones Lete 1

**D TALDEA**

Laso Arregi 3 - Tuttifrutti 4  
Kriskibalda 4 - Maccabi de Levantar 4  
Franciscanerr 2 - Revolution Rock 8  
Elisabeth 3 - Tovarixt 6  
Bodisca 2 - Zulus 12  
Iluna Taberna 4 - Solano 7 Mares 3  
AC Surcos 2 - Potroak Lorategi 3  
Nuevo Taberna 4 - Los Dimy 1  
Ezkiñako Hontzak 2 - Gure Leku 12



**ORAIN LARUNBATETAN ERE BAI!!**

- Helduentzako ingelesezko ikastaro trinkoak
- MAILAK: Oinarrizkotik ertainera
  - ORDUTEGIA: 9etatik 12etara
  - IKASTAROAREN HASIERA: otsailak 4
  - MATRIKULA zabalik urtarrilaren 31ra arte
  - INFORMAZIO GEHIAGO jasotzeko dei egin:  
79 01 32 - 79 65 54 tfnoetara

AHIZKE - CIM Koop. E.  
Araba Etorb., 4

20.500 ARRASATE

**Deba Garaia Inmobiliaria**



**Inmueble eta finantza agentzia**

Iturriotz, 23 etxebehea ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 02 / 77 14 27

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 15**

**Zaldibar**

- 08.50 Alla Kuidaus - Koxkas
- 10.00 Ezkiñako Hontzak - Tuttifruti
- 11.00 Kriskibalda - Revolution Rock
- 12.00 Los Dalton - Mikelos
- 13.00 Berango Sukaldeak - Zotz
- 14.00 Fancy Bois - Notxingan Florest
- 15.00 Arrasate Kirolak - Ganbelas
- 16.00 Adelaida Haizea - Los Heredia
- 17.00 Kirten Tropel - MZK Ganbelas
- 18.00 Argi Ibili - Monterrey Zubi Bel
- 19.00 Auf dem Koffer - Trikiti

**Iturripe A**

- 10.00 Fosforos - Sibilius Rover
- 11.00 Franciscanerr - Tovarixtx
- 12.00 Diego Antonio - Ooole
- 13.00 Corinto Taberna - Leya
- 15.00 Hirei - Pepelus
- 16.00 Laso-Arregi - Maccabi de Levantar
- 17.00 Jey Juliwer - Resakas
- 18.00 Borrockn Roll - Kakajauri

**Iturripe B**

- 11.00 Anbostoste KT - Sokoakoak
- 12.00 Irati STS - Lenitz Garagardotegia
- 13.00 Bizkorak Avenida Taberna - Whiskeria Linde
- 15.00 Alpen Krausser - Kopyprest
- 16.00 Carbueros - Gure Leku
- 17.00 Danok Lagun - Tronkoteak
- 18.00 Elisabeth - Zulus

**Igandea 16**

**Zaldibar**

- 08.50 Betrayar - Excavaciones Lete
- 10.00 Bodisca - Solano 7 Mares
- 11.00 Txoko Taberna - Nabarros
- 12.00 Arrasate Kristaldegia - Motz
- 13.00 Atxanta ke te merece - Ojo Avisore

**Iturripe A**

- 10.00 Fraguel Gol - Suministro Ugarte
- 11.00 Iluna Taberna - Potroak Lorategi
- 12.00 Etxe Mobiliario - Uglys Txinato
- 13.00 AC Surcos - Los Dimy

**Iturripe B**

- 10.00 Arluz - Ikatz
- 11.00 Bukanak - Zuloak
- 12.00 Bayern Lenitz - Euskal Indarra
- 13.00 Foto Imagen - Potrosorri



## Hiru jokalekuetan prest daude petoak

Zaldibarko gehigarria argitaratu genuen azkenengoan, abenduaren 24ean, irakurle baten gutuna jaso eta argitaratu genuen, kamiseta berdintsuekin jokatzeko denean gertatzen diren nahasmenduak direla eta. Jokalari anonimo horrek, arazoak ebitatzeko jokaleku bakoitzean peto batzuk jarzea proposatzen zuen.

Antolatzaileekin kontsultatu dugun auzia, eta hara non, gure irakurlearen proposamen horrek baduen erantzuna, eta aspalditik gainera: Iturripen eta Zaldibarren, hiru jokalekuetan daude petoak prest, taldeek erabili ahal izateko. Baloiak gordezten diren tokian daude petoak, nahiz

eta gehienek erdi-ahaztuta dauzkaten. Erabiliagatik, baliteke zikin-samar eta izerditsu egotea, baina hantxe daude, arazorik badago edozein momentutan erabili ahal izateko.

Kezka hori argiturik, aipa dezagun asteburuko beste asunto bat: Pepelus taldeko jokalarik bati ezarritako zigorra. Pepelus - Fosforos partiduan izan zen: *Pepelutar* batek oso sarrera gogorra egin zion *fosforito* bati. Fosforosekoak aurre egin zion pixkat besteari, eta ondoan Pepelusekoak ukalondoko gogor batekin erantzun zion. Antolatzaileen erabakia: bi partiduko zigorra, asteburu honetan eta hurrengoan bete beharrekoa.



## Parques y Jardines


**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Desarrolloismo bortitzeko azarnak geratzen diren arren, kultura eta aisialdirako elementuez osatuz joan da Arrasate azken aldian.

# Plan Orokorra XXI. mendeko Arrasate marrazten

Luis Fernandez

**Nolakoa izango ote da Arrasate XXI. mendean? Erantzuna, hein handi batean, herritarren eskuetan dago eta, gainera, oraintxe da erantzun hori pentsatu eta botatzeko garaia. Horretarako bidea, Plan Orokorra izango da: Udala egiten ari den hirigintza plangintza zabala, hiriaren etorkizuna marrazteko pauso garantzitsu bat.**

Arrasateko Udalak datozen hilabeteotarako duen la-

nik funtsezkoenetakoa da Plan Orokorren erredakzioa. 1996. urtera arte luzatuko da Plana indarrean jarri arteko prozedura; prozesu luze eta nahasia, baina beharrezkoa, Udaleko hirigintza saileko

arduradunen iritzi.

Plana erredaktatzeko beharleku hau ez da kapritxo hutsezkoa. Legez, Arrasate-ren neurriko hiriek Arau Subsidiarioen ordeztan, Plan Orokorra izan behar dute aurreran-

tzean. Hau da, herriaren lur guztien ordenatze eta sailkatze osoa, detailatu eta arautua.

Prozedurak hasi du bere bidea. Lehen urrats gisa, legeak markatutako jende-aurreko aurkezpen publikoa baino lehenago ere, zirriborroa idazteko jendearen partehartzea bilatu nahi izan du Udalak. Herriko dozenaka elkarte eta erakunderi iritzia eskatu zaio, eta lau bilera zabal ere egin dituzte kezkek biltzeko: sektore industrialarekin, zerbitzu arloarekin (Ibai-arte, banketxeak...), teknikariek (arkitektoak, aparejadoreak,

## Plan Orokorra egiteko egutegia

Kontsultak eta lehen urratsak	93-10 / 94-01
Proposamen teknikorako hasierako zirriborroa	94eko otsaila
Aurrelaburpenarako proposamen teknikoak	94eko maiatza
Aurrelaburpenaren onespina plenoan	94eko uztaila
Informazioa, publizitatea eta marketina	94eko urria
Jende aurreko 1. erakustaldia	94eko abendua
Irakozkizunei buruzko txostena	95eko urtarrila
Planaren hasierako onespina plenoan	95eko apirila
Jende aurreko 2. erakustaldia	95eko iraila
Alegazioei buruzko txostena	95eko urria
Behin-behineko onespina plenoan	95eko abendua
Behin-betirako onespina Diputazioan	96ko urria



Cerrajerako 70.000 metroen kalifikazioa izango da Planeko puntu beroetako bat.

consulting-ak...) eta inmobiliarietara (eraikitzaile eta promotoreekin).

Kezka batzuk jaso dituzte dagoeneko, baina oraindik zalantza asko daudela dirudi. Adibidez, merkatariren batek puntu konkretu batean zebra-bidea jarri behar zela bota zuen, eta hori ez da Plan Orokorriari dagokion auzia. Zer da bada Plana? "Askotan konfunditu egiten da Plan Orokorra eta plan estrategikoa: Plana ordenatzea da", adierazi digu Juan Antonio Urdangarinek, Udaleko hirigintza teknikariak.

Lurra sailkatu egiten da, eta atal bakoitzari erabilpen bat markatzen zaio. Erabilpen posiblea benetan gauzatu den edo ez, beste kontu bat da hori, Urdangarinek azaltzen digun bezala: "Ipintzen bada hemen berdegune bat egingo dela, egin egingo da? Agian bai, agian ez, baina behintzat egin behar baldin bada, hor egingo da eta ez beste leku batean".

#### 85eko ARAU SUBSIDIARIOAK

Arau Subsidiarioak ordezkatzera etorriko da Plan Orokorra. Arauak, 1985ean

onartu ziren, bi urteko prozedura baten ondoren, eta geroztik behin baino gehiagotan aldatu behar izan dituzte. Horren arrazoietakoa bat, aurrikuspen gutxi erabili zela izan daiteke, Urdangarinen ustez. Horrek ez dio meriturik kentzen orduko lanari, udal demokratikoeekin batera erredaktatuko lehenbiziko arauetakoak izan ziren eta Arrasatekoak.

Arau haiek baino lehenago, hala-moduzko plangintza xume bat zegoen, eta eginean eginean erakitzen joan zen herria: desarrollismoaren garaia izan zen hura.

Orain plangintza zehatzen garaia da aldiz, eta prozedura luzea den arren, merezi duela uste dute Udaleko hirigintza sailean. "Eguneroko kudeaketan oinarritzen den hirigintzak azkenean eguneroko partxeo sistema bat dakar, kontuan izan gabe aldamenekoak nondik nora doazen, eta oso erraza da pikareska tartetik sartzea, eta hori superatu egin behar dela uste dut", azaltzen digu hirigintzako teknikariak. Plan Orokor batekin, ordea, politikarien kapritxoak edo gurari kointunturalak zailagoak dira, Plana aldatzeko proze-

dura oso konplexu eta zaila delako, erredaktatzekoaren parekoa.

#### SOZIOLOGOAREN HIPOTESIAK

Plana 1996. urtean onartuko da behin-betirako, eta zortzi urterako balio izango du: 2004. urteraino. Nolakoa izango ote Arrasate orduan? Dagoeneko galdera honi erantzun posible batzuk eman dizkiote udaletxean, plangintza zabal hau egiteko aurrera begirako hipotesiak landu behar izan dituzte. Kontxi Malet soziologoak egin du lan hori, eta biztanlegoari dago-kionez, egungo 25.316 biztanleen gorabeherarako hiru zpalan hipotesi landu ditu. Azken urteetan beherakada gertatu da Arrasaten, baina hala ere, ikuspegi optimistari eutsi egin behar zaiola uste du Maletek, bere aburuz, oraingo neurrian segituko du biztanlegoak.

Hala ere, gertatuko da al-daketa funtsezko bat. Gaur egunean, 19 urte baino gutxiagokoak biztanlegoaren % 26 dira, eta 65 urtetik gorakoak, % 11. Kopuru horiek alderantziz jartzeko joera dute. Biztanlegoaren estrukturan aldaketaren ondorioz, zerbitzu arloan, adin-talde garrantzitsu horren premiei erantzun egin beharko zaie.

Soziologoak aztertu behar duen beste atal bat, jendearen enplegu maila da. Ekonomia-ren alorrean, azken garaietako datuak ez dira itxaropentsu egoteko modukoak, baina 15 urte barru, berdin edo okerrago egongo ote gara? Zentzu honetan, erdialdean dagoen lur-zati garrantzitsu baten kalifikazioa izango da Planeko punturik beroenetarokoa: Zerrajerako 70.000 metro karra-tu horiek. Sindikatuek argi esan dute: kalifikazio industrialari eustea, gaurko jabeen (UCEM korporazioaren) espekulazio saio posibleak ebittatzeko.

**B**  
**iztanlegoak**  
**oraingo**  
**neurrian**  
**segituko**  
**duela uste**  
**dute**  
**teknikariak,**  
**baina adin-**  
**piramidea,**  
**buruz-behera**  
**ari da**  
**jartzen.**

● *Juan Antonio Urdangarin*

# Gasteiz ala Eibar eredu?

**Udaleko Hirigintza arloko teknikaria Juan Antonio Urdangarin zarauzitarra da. 32 urte ditu gaste honek, injinerua da, eta 1987tik dago lanean Arrasaten. Plan Orokorraz (Plan Generalaz) eta urbanismo gairez mintzatzeko elkarrizketatu dugu.**

— Geratzen da desaroilismo garaiko aztarnarik?


— Kontuan izan behar da desaroilismo zoro horrek oraindik ere eragina baduela. Badaude horren adibideak. Ez dago aske pentsatu beharrik zeintzuk diren esateko. Desaroilismo zoro hori geratu zenean, jo da beste maila batetik ikusitako urbanismo-ra. Adibidez, urbanizazio maila, bai plaza, bilgune, lorategi eta horietan lan egin da. Horrek bizi-kalitatea igotzea dakar, ikuspuntu urbanistiko orokorretik. Industrieguneak ere, desaroilismo garaian, zoko batzuk ziren, eta pixkanaka-pixkanaka garbitzen doaz. Denetik dago, eta gonbaratzekotan, Arrasate ez da Eibarko desastre hori izango, ezta Gasteiz bat ere, baina beno, gehiago doa Gasteiz-itxurara, Eibar-itxurara baino. Kontuan izanda zein den gure orografia, errazagoa litzatekeela Eibarren tanke-rakoa izatea Gasteizen tanke-

rakoa baino. Lortzen ari gara pixkanaka, diferentziak markatuz, baina bai.

— Plan batean berdegune bat markatzen bada, horrekezu esan nahi gero hor berdegune bat egingo denik. Zergatik?

— Aurrenik, planeamenduak egiten du lurra sailkatu eta erabilpenak ipini bakortzari. Gero sosak daude. Esaten bada leku batean berdegune bat ipini behar dela, lehenengo egin beharko da lur horiek erosi, gero obrak egin... Beste interbentzio mota batean berdin, etxeak egiteko promozioan kasu. Egin beharko da bertako jabeen artean, edo kanpotik etortako enlaguntzaz, bildu, konpentsazio bat egin, proiektuak aurrera bota eta guzti hori. Elementu asko sartzen dira hori aurrera eramateko, bai publikoak eta bai pribatuak. Publikoak, ez bakarrik udal-txeak, erakunde guztiak: Diputazioa, Jaurlearitza eta abar. Eta pribatuak, bai lurjabeak, bai promotoreak, eta bai merkatua. Adibidez, ipintzen bada kristoren industrialdea eta hor ez bada inor jartzen, paperean ondo, baina...

— Hirigintza mintzagai dugula, etxebizitzaren garestitasuna da gehienon kezkarik arruntena.



— Arazoaren funtsetako bat lurraren garestitasuna da. Eta garestitasun hori lurraren eskasiagatik da. Bizi garen lekuan bizi gara eta horrek merkatuan eragin inportantea du. Urbanizazio lanak ere normalean gehiago kostatzen dira gurearen orografia antzekoa duten herrietan, lautada handietan baino. Gauza horiek eragina dute, hori nabaria da. Gero, jendearen kultura, propietario izan nahia, eta alkileraren maila txikia. Hori kulturala da eta errotuta dago gure gizartean, nahiz eta nik zalantzan ipini. Beste leku batzuetan jabe portzentaiak askoz ere txikiagoak dira. Zer gertatzen da? Guztiok nahi dugu jabe izatea, eta horrekin, oferta edo eskaintzaren aldean dagoenak eskumen gehiago dauka salneurrian bere alde

jokatzeke. Nik garrantzia handia ematen diot kultura horri: jabe izan beharra, "nire txokoa" izan beharra.

— Zelako Arrasate 10-15 urte barru?

— Bizi-kalitatea nolabait igotzen saiatu behar dugu, baina kontuan izanda bizi-kalitate horrek ere ikuspegi asko dituela. Ingurugiroaz hitz egiten denean, kontuan izan askotan gehien eragiten gaituen ingurugiroa urbanoa dela, eta hor egin behar direla lanak: berdeguneak, agian oinezkoentzako leku gehiago eta kotxeentzat gutxiago. Nola egin liteke hori? Agian lortuko dugu kotxeak egon behar diren lekuan egotea, erraztasunak eman ordez, zailtasunak jarritz. Oinezkoentzat eta aisialdirako prestatuta egon: agian berdeguneren bat, kirol guneak osatu agian, kultura ekipamenduak; horiek beharko dira. Nik uste dut pixkanaka-pixkanaka eta denon artean hobetzen joango garela, hori izan beharko dela behintzat helburua.

● **“Jendearen kulturak, propietario izan nahiak, eragin handia du etxebizitzaren garestitasunean”**



Zelaitxos taldea, Gabonetalo VII. koadrilen arteko txapelketa irabazi duena.

## Ezusteko derrota saskibaloian, baina esperantzak goian

**Saskibaloi** Taldeak ez du finegi hasi urtea. Lehen partiduan, teoriar txarragoa zen Caja Vital talde arabarraren aurka galdu egin zuten Musakolan joan den asteburuan (78-83). Txus Brizuelaren taldean bazeuden lesionatuen batzuk, baina hala ere, maila kaskarra erakutsi zuen Arrasatek.

Hala ere, 2. mailako bere taldeko sailkapenaren lidergoan dago Arrasate (14 jokatuta, 11 irabazita, 3 galduta), Loiola Indautxu taldearekin parra, eta hara!, asteburu honetako partidua horien aurka izango da Bilbon. Benetan partidua erabakiorra, beraz.

Ligako lehen fasea amaitzeko 4 partidua geratzen dira, eta talde bakoitzeko 5 lehe-

nak igaroko dira bigarren fasera. Bigarren fasean, 2. mailako beste taldekoen aurka jokatu dute ekipoek, baina norberaren taldean sailkatu direnekin izandako emaitzak kontuan izango dira. Beraz, kasu honetan, Caja Vital sailkatzen ez bada, azken emaitza horrek ez dio kalterik egingo Arrasateri. Loiola-Indautxurekin jokatutakoak, ordea, gero ere balioa izango du. Ordiziarren aurka urtarrilaren 29an jokatu beharrekoa ere oso garrantzitsua izango da. Beste bi partidua seguruenik sailkatuko ez diren taldeen aurkakoak dira (Cantabria eta Paulesen aurkakoak).

Bigarren fasea amaitzean, lehen bi sailkatuak lehen mailarako igoera fasera

pasatuko dira, eta horixe da Arrasateren helburu eta ametsa.

### KOADRILEN ARTEKO BASKETA

Koadrilen arteko 7. saskibaloia txapelketaren finala Errege egunean jokatu zen, eta Zelaitxosek lortu zuen garaipena eta txapela. 20 taldek eman zuten izena, eta bigarren fasera sei igaro ziren froga herriko honetan. Finalerdietan, Sukaldeak Eya, Ziorla Basket, Aizpun Bila eta Zelaitxos elkartu ziren, eta finalerako Zelaitxos eta Ziorla Basket geratu ziren.

Finalean erraztasun handiz irabazi zuten zelaitxotarrak, eta 17 puntuko alde ateratzen zioten Ziorlari.

## LABURRAK

### Eskubaloia eta rugbya

Saskibaloian ez bezala, ederto hasi dute urtea rugbyan eta eskubaloian. Rugbylariek 32-5 irabazi zioten Algortari, Garagarzako zelai lokaztuan. Horrekin, euskal ligako 2. mailako lehen postuan segitzen dute, Unibertsitariotaldearekin berdinduta. Eskubaloian Arrasate Kirolakek 18-13 irabazi zion Hernaniri, baina hala ere, ez zen partidua luzituegia izan Iturripekoa. Dena den, hor dago Arrasate, lidergotik gertu, eskualdeko 1. mailan.

### Eskolen arteko atletismo frogak

Umeak eskolara itzuli diren honetan, gogora dezagun oporrak hartu baino lehentxoago, San Frantzisko Xabier, San Viator, Erguin, San Andres eta Aramaioko ikastetxeen arteko kirol froga atletikoak egin zirela Iturripen. Zortzi urteko neska-mutikoak izan ziren parte hartu zutenak, giro ederrean. Emaitzarik aipagarrienak, luzera jauzian Jon Loitik (3.68 metro) eta Ainhoa Grañak (2.18 lortutakoak), eta 50 metroetan Jon Loitik egindako marka (8''03). 4 x 90ko erreleboak ere egin zituzten eta hor San Frantzisko Xabierreko taldea nagusitu zen Erguin eta San Viatorrekoen aurretik.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**URRATS**

AHOLKULARITZA

GARIBAL, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**IBARRA**  
Garajea S.L.



EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua



**PENALTIAK**

● **Gabonetako partiduen ostean, bolada txarra apur bat gairiditurik, berriro positiboen alorrean kokatu da Mondra 3. mailan. Hala ere, igandean galdu egin zuten Elgoibarren (2-0). Aurretik, beste bi partidu jokatzen zituen kanpoan, Sodupe eta Urolaren aurka, eta biak irabazi emaitza berberaz (0-1).**

● **Elgoibar-Mondra partidu horretan haize izugarria izan zen protagonista nagusietakoa. Haizearen indarragatik, bitxikeria harrigarri bat ere gertatu zen. Urzelai atezainak atetik atera eta baloia desbideratu egin zuen haizeak: nora eta korrerera! Eskerrak ez zitzaion porteriara sartu.**

# Sariak emakumezkoen Mondrari, Izaskun Iglesiasi eta ATBri

AUKEAk, Arrasateko udal-kirol elkarteak, 93an gehien nabarmendu diren kirolari eta kirol-elkarte arrasatearrik saritu ditu, aurreko urteetan bezala. Kirolari bat, talde bat eta aipamenezko sari berezi bat dira Errege egunean Iturripe kiroldegian banatu zituztenak.

Sari individuala Izaskun Iglesiasi gimnasta gazteari eman zioten, aurten Euskadiko gimnasia erritmikoko txapeldun geratu delako. Taldeen artean, Mondragon Futbol Klubaren nesken futbol taldea izan da saritua, Gipuzkoako Kopa irabazteagatik. Bi sari nagusi hauez hain, merezimenduzko sari eta aipamen berezi bat eman zion AUKEAk Arrasate Telebistari. Asteroko saioen bitartez, Arrasaten kirola sus-



Saritua AUKEAko ordezkariekin batera.

tatzen egindako lanagatik egin dio AUKEAk ohore hori ATBri. Sari banaketan, Titu Loitik jaso zuen oroigarria Mondraren izenean, eta Iñigo Andolak ATBrenean.

Gogora dezagun, bide batez, iaz nortzuk izan ziren AUKEA sarien irabazleak: indibidualen, Angel Gar-

ciak eroan zuen plaka; taldeen artean, AKE futbito taldeak; eta merezimenduzko saria Joxe Errastik. Horrez gain, publikoaren sari berezi bat ere egon zen, ARRASATE PRESSEKO orrialdeetatik hautatutakoa, eta hori Luis Mari Lopez Rekarte futbolaria izan zen.

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Sodupe 0 - Mondra 1  
Urola 0 - Mondra 1  
Elgoibar 2 - Mondra 0  
Emakumezkoak: Dunboa 0 - Arrasate 4  
2. regionala: Antzuola 3 - Mondra 3  
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 3 - Ordizia 0  
Jub. 2. maila: Arrasate 4 - Urki 1  
Kadeteak, 1. maila: Aurrera Ondarroa 1 - Arrasate 0  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 2 - Amoroiz 4  
Haurrak: Soraluze 2 - Arrasate 7  
Hurrengoak:  
3. maila: Mondra - Balmaseda. Atxabalpe, igan., 15.45.

2. maila: Loiola Indautxu - Arrasate. Bilbo, igandea, 12.15.  
Sub-23: Arrasate - Erreterria. Musakola, igandea, 11.30.  
Jub. mutilak: Arrasate A - Bergara. Musakola, lar., 18.00.  
Jub. neskek: Patterncam - Iraurgi. Musakola, igan., 11.30.  
Kad., neskek: Benetton - Amigos B. San Viator, lar., 12.00.  
Arrasate B - Ordizia. San Viator, lar., 16.00.  
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak - Andraitz. Musakola, lar., 12.00.  
Beasain - Arrasate B. Beasain, larunbata, 16.00.

Neskek: Gaztedi 117 - Arrasate 0  
Hurrengoak:  
Euskal liga, 2. m.: Arratiko txekorrak - Arrasate. Igorre, lar., 16.00.  
Jubenilak: Ordizia - Arrasate. Ordizia, lar., 16.00.

**Eskubaloia**

1. eskualdekoa: Pasaitarra 18 - Arrasate 13  
2. eskualdekoa: Arrasate 27 - 23  
Jubenilak: Leitzarain 16 - Arrasate 10  
Hurrengoak:  
1. eskualdekoa: Urnieta - Arrasate. Urnieta, igan. 12.00.  
2. eskualdekoa: Beasain - Arrasate. Beasain, igan., 11.30.  
Jubenilak: Arrasate - Urola. Iturripe, igan., 12.00.

**Saskibaloia**

2. maila: Arrasate 78 - Caja Vital 83  
Hurrengoak:

**Rugby**

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 32 - Algorta 5

**GORKA**

ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**ZUBIZARRETA  
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

**PEUGEOT - TALBOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

# ALMENek heziketa proiektu berria

**Urte** luze bat hausnarketan eman ondoren, ALMENen Hezkuntz Proiektua aurkeztu berri dugu.

Baina, zer da Hezkuntz Proiektua? Zer jasotzen du edota zein garrantzia dauka?

Guretzat, Hezkuntza Proiektu batek eskola baten asmoa jasotzen du, eskola batek heziketa ulertzeko duen era propioa. Horregatik, Almenek hezkuntzari buruz dituen helburuak definitzen dira bertan, gizarteari begira ikasleekin lortu nahi duguna, alegia.

Horrela, proiektuaren inguruan bildu garenean, landu behar ditugun baloreak zehaztu ditugu lehenengo, eta hauek lortzeko bidezkoak iruditu zaizkigun ikastetxearen ezauzgarri nagusiak eta partaide bakoitzaren papera edo funtzioa segida.

Ageri-agerian dago duen garrantzia, bada. Helburu horrek mugatzen du ikastolaren ihardura osoa eta partaide guztien (irakasle, guraso, eta



bazkideen) eginbeharrari koherentzia eta batasuna ematen dizkio. Guztion borondatea jasotzen duen akordioa izanik, gainera, gizabanakooi helburu horrekiko konprometuzua ezartzen digu.

Zein da egin dugun aukera? Gure proiektuaren muina **pertsonak** egitean datza. *Nor bere buruaren jabe* izango direnak, inguratzen dituenarekiko sentikorrak eta gizartean integartzeko, jokatzeko eta hobetzeko gai izango direnak. Azken finean, balore kualitatibo gehienez jantzi eta kapazitazio intelektual gorena eskuratzen laguntzen badiegu, elkarlanean gizartea hobetuko duten pertsonak lortuko ditugu.

Ilusioz eman diogu hasiera etapa berri honi, irakasle eta guraso taldearen artean dagoen batasunak emari onak izango dituelakoan.

**MAIA ETXEBERRIA**  
**ALMENEKO GIZA**  
**FORMAKUNTZA ETA ORIENTAZIO**  
**ARDURADUNA**



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

## ZER NAHIAGO?

## Mari Cruz Garcia

## "Troko" dendakoa

- Nola dekoratu zenuten eskaparatea lehiaketa irabazteko? Ez genuen ezer berezirik egin, ez genuen irabazteko asmotan dekoratu.
- Zein markatako erropak dituzue dendan? Dytex markako erropa asko, baina orokorrean, etxe alemaniar eta italiarretakoa.
- Daukazuen gauzarik garestiena? Larruzko prakak eta kazadorak.
- Zein adinetako jendearentzat da erropa hau? 20 urtetik gorako emakumeentzat.
- Zer da gutxien saltzen dena? Bakeroak.
- Zenbat urte ditu dendak? Bost.
- Zer moduz janzen dira arrasatearrak? Ondo, estíloa dute, gauza onak eskatzen dituzte.
- Zein da orain modan dagoen erropa? Gona luze eta zuzenak.
- Zein kolore dago modan? Marroia.
- Negurako kolore bat? Marroia.
- Prakak edo gona; zer nahiago? Gona, prakak txarto geratzen zaizkit.
- Nongo bezeroak etortzen dira dendara? Oñati, Aretxabaleta eta herrikoak.
- Zapata takoidunak edo takoigabeak erabiltzen dituzu? Takoi pixka bat badute, hobeto.



## BERTSOAK

## Joxe Manuel Arriolri bertsozaleek omenaldia


Urtarrilaren hogeitairua  
iritsi denez urrera,  
Jose Manuel omendutzero  
goazen Donosti aldera,  
bertsozaleok ez daigun galdu  
jai bikain honen aukera  
txartela hartzeko deitu ezazu  
azkar azkar AEDra.

Brometan hasi zinan idazten  
gero benetan jarraitu,  
bertso jartzaile handi izaten  
azkenerako amaitu;  
Donostian zu omendutzeak  
benetan poztutzen gaitu,  
jarrai idazten, euskera zaharrak  
berri omenduko zaitu.

PATXI GOIKOLEA



- famili eta gizarte heziketarako zentruak
- gipuzkoa donostia kutxaren gizarte ekintza
- santa teresa, 12 Tfnoa 79 04 59 ARRASATE



## PROGRAMAZIOA

### 1994.ko Ikastaroak

- \* Psikologia Soziala
- \* Garapen Pertsonala
- \* Erlajazioko masaia
- \* Sofrologia (Erlajazio Dinamikoa)
- \* Kultura Orokor Mugikorra
- \* Elikadura eta Nutrizioa
- \* Lanpostua Bilatzeko Prestakuntza
- \* Unibertsitaterako Sarbidea


- \* Patroidun Joskintza
- \* Marraskia eta Pintura
- \* Puntua eta  
Gakorratza
- \* Sukaldaritza  
eta Gozogintza
- \* Eskulan Tailerra
- \* Kitarra

# ANIMATU!!

# Valentin Moñux

## “Miserableak”: Thénardier-en paperean

**Bergarako Musika Eskolaren 10. Urteurrena dela eta, hainbat bergaratarrek erronka zail bati eutsi zioten: Victor Hugoren “Les Misérables” musikala, “Miserableak” izeneko musikal bihurtzea. Sekulako arrakastaz lortu dute helburu hori. Orain arte 13 hizkuntzatar itzulia izan den musikal zoragarri honi, hemendik aurrera bat gehiago gehitu behar zaio: Euskara. Valen Moñux, te-loiaren atzeko lanaren arduraduna izan da.**



Eskola hamargarren urteurrena ospatzera zioanez, zerbait “handia” egin behar genuela pentsatu genuen. Alfredo Gonzalez Chirlaquek, orkestrako zuzendariak, aspalditik zerabilen ideia hau buruan, eta musikal hori inguru honetan oso ezaguna egiten hasi zenez, Londresen lortu zuen diska eta musikarekin “engantxatuta” geratu zen Alfredo. Musikal hau, modu batera edo bestera Bergaran egin behar zela sartu zitzaion buruan.

**— Musikala euskaraz egiteko erabakia oso garrantzitsua izango zen, ez?**

— Bai, bai, oso garrantzitsua. Alde horretatik erraztasuna izan genuen; “Miserableak” musikal bat delako, eta ez opera bat. Musikalek, askoz ere erraztasun handiagoa

ematen dute itzultzeko orduan, askoz ere popularragoak direlako. Operak ordea, askoz ere estatikoa-goak direla esan daiteke: garai batean, operak itzultzeko tendentzia egon zen, orain berriz, badirudi operaren jatorrizko hizkuntza sakratua dela.

**— Zenbat denbora eraman dizue musikal osoaren prestaketak?**

— Urtebeteko lana izan da. Lehenengo, musikal euskaratu behar izan genuen eta gero “casting”a egin. Oso lan gogorra izan da, baina ikusi ahal izan denez, merezi izan du.

**— Abeslarien aukeraketa zaila izan zen?**

— Bai, nahiko lan zaila izan da, eta gainera erresponzabilitate handikoa. 4 pertsonen artean egin genuen abeslarien aukeraketa.

**— Irtegora “Miserableak” Bergararik?**

— Esan. beharra dago, frontoi honek ez dituela oso kondizio akustiko onak batzen, baina ez genuen beste aukerarik. Musikala leku aproposago batean egin ahal izatea espero dugu.

**— Agian Arrasateko Amaia antzokian?**

— Horixe, agian.

## Miguel Baselga pianujolea Arrasaten

Hil honen 17an, Miguel Baselga pianujole espainiarren musika izango dugu entzungai arrasatearrok.

1966an jaio zen Luxemburgo eta 6 urterekin jo zituen lehen aldiz pianuaren teklak. Formazio musikal osoa Belgikan burutu zuen. 1985an lortu zuen bere lehen saria. Ondoren, Eduardo del Pueyo maixuarekin jarraitu zituen bere ikasketak hura hil zen arte. Arrasaten emango duen errezitaldian, Rachmaninoff, Soler, Schubert, Liszt eta Ravelen hainbat obra joko ditu.

## Bergarako 29 margolarien lanak Harresi Aretoan

Urtarrilaren 7tik 23ra bitartean, Bergarako 29 margolarien pinturak izango dira ikusgai Arrasateko Harresi Aretoan. 1955. urtetik 1972. urte bitartean egindako pinturak dira guztiak eta izen batzuk aipatzekoatan Xabier Agirre Unamuno, Jose Maria Aguirre Zenitagoya, Maria Paz Alustiza Larrañaga, Fernando Arenaza Ecenarro, Bingen de Pedro Barrenetxea, Carlos Galarraga Aranzabal, Ricardo Azkargorta Zelaia, Iñaki Iturbe eta beste makina bat margolarien lanak daude ikusgai. Harresi Aretoa, arratsaldeko 6etatik 8etara egoten da zabalik aste egunetan, jai egunetan berriz, eguerdiko 12etatik 14.00etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

### OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerías, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

### • Txitxinpe •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

M  
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

## LABURRAK

**“1994ko Gida Komertziala” zuretzat**

“Gida 94” izenpean ARKOk opari ederra egin zizun Abenduko azken ARRASATE PRESSEN alearekin batera. Gida honetan, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako zerbitzu guztiak aurki ditzakezu, guztira, 4.000 zerbitzu gutxi gora behera. Ordena alfabetikoan aurkituko duzu bilatzen ari zaren albaiteko, ileapaindegi, harategi, erropa denda nahiz jatetxe horretako telefonoa. Dena den, nahiko azkar egindako lana da, beraz, ziur akats bat edo beste aurkituko duzula; bai telefono zenbakietan, bai helbideetan, baita hainbat zerbitzuren aipamen ezean ere. Akatsen bat somatuz gero, eskertuko genizueke horien akatsen berri emango bazenigu, datorren urteko gida komertzialean, akats gabeko lana egitea espero dugu eta. Banaketan arazorik egon bada, agian “Gida 94” ez zenuen jasoko. Gida etxean edukitzea nahi baduzu, pasatu zaitez ARKOn egoitzagatik, eta gustora emango dizugu gida komertziala. Gida komertziala zuretzat erabilgarria izatea espero dugu, horixe izan da behintzat gure helburua.



Zine-kluba Amaia antzokian izango da.

## Zine-kluba laster

60. hamarkadaren hasieran, Arrasatek bere lehen Zine-Kluba izan zuen, Gipuzkoako lehenetarikoa. Garai haietako Zine-Klubak sekulako arrakasta izan zuen, 600 bazkide izatera heldu zen. Gurea zinema mitikoan elkartzen ziren eta bertan botatzen zituzten pelikulak; geroago, Amaia antzokira joan ziren. 80. hamarkadako lehen urteak izan ziren Zine-Klubaren dekadentzia urteak: filmak aukeratzeko aholkularitza batzorde baten falta izan zen dekadentziaren arrazoiatariko bat, jendeak zinemara joateari utzi egin zion. Zine-Klubak 25 urtetan zehar lanean jardun zuen, Amaia antzokia eraberritzeko lanak egiten hasi ziren arte, 1989. urterarte. Orduan, Zine-Kluba desagertu egin zen.

Galdutako inizatiba hori berreskuratu nahian, Arrasateko 6 lagun zinefilo elkartu, horien artean udaletxeke kultura arduraduna, Jon Garai, eta zine-klubaren ideari berriz ere heldzea pentsatu dute. Froga moduan, martxo aldera hasiko da zine-kluba martxan; sei lagun hauek osatzen duten taldeak, aholkularitza lana egingo du, hau da, nahiz eta pelikulen kontratazioa udaletxearen kontura utzi, talde honek erabakiko du zein pelikula ekarri herrira. Filmak, ez dira filme komertzialetako sarean sartuko, hau da, nolabait hain kalitate onekoak eta hain famatuak ez diren filmen proiektzioan datza zine-klubaren helburua. Pelikula hauek ez liritezke distribuidora handi eta famatuaren zirkuluan sartuko.


Zine-Klub honek arrakasta izango balu, 6 hilabeteren buruan autonomia osoz funtzionatzen hasiko litzateke. Filmak ostegunetan emango liriteke, gaueko 9ak aldera, Amaia antzokian eta prezioz, modu onean.

Ez da edonolako izan Zine-Kluba berreskuratzearen ideia, kontutan izan behar da, Arrasatek makina bat zinefilo batzen duela. Aipatutakoa baieztatzeko arrazoiak ugari dira: Asteburuetan jende ugari joaten da zinemara Gasteiza, beti ikusten da arrasatear bat baino gehiago. Bestalde, Alai zinemak zutik dirau, eta azkenik, jende asko joaten da Elorrioko Arriola Kultur etxeko zine-klubak botatzen dituen filmak ikustera ere.

**URRIN  
EDARITEGIA**

**Etxeko janari bereziak**

Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE



**skola** Politeknikoak, aurten 50 urte bete dituen eskola horrek, promozio asko kaleratu du, bere ikasketa arlo eta ikasturte ezberdinetan zehar. Eskolaren sasoi bateko egoitza gaur egungo Eskualde Ospitalean izan zen. Bertan ateratakoa da erretratu hau, 59-62 urte bitartean Ofizialia ikasi zuen promozioa dugu.

Goiko lerrotik eta ezke-

retik hasita, **Dominguez, Arostegi, Lekunberri, Zuñaiga, Ugarte, Elortza, Urri-zalki, Ayape, Arregi, Jabbier Trojaola, Plaza, Osinaga, Zeziaga, Alzibar, Ibaibarriaga, Maeztu, Etxebarria** eta **Pagoaga**.

Erdian, ezkerretik, **Lopez de Bergara, Morrás, Okina, Ansoategi, Ben-goetxea, Furundarena,**

**Juan Mari Trojaola, Urrutia, Guridi, Madinabeitia, Vazquez, Fernandez, Elkoro, Zubizarreta, Osinaga Leibar** eta **Osés**.

Behean: **Eraña, Olabe, Yarza, Iturbe, Berridi, Urzelai, Dominguez, Iglesias, Rodriguez, Lukas, Aranburuzabala, Berezi-bar, Herrasti** eta **Legorburu**.

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

# RKUZ

# Sukaldeak

**FAGOR**



Sukalde integratuak

**Banatzaile Ofiziala**

Mitarte, 3

Tfno-Fax: 77 04 55

ARETXABALETA



## ALTZARIAK

ETXEKO ALTZARIAK  
DISEINUA - APAINKETA

Araba Etorbidea, 20  
Tfno - Fax: 79 23 51

## ELEKTROGAILUAK

TV - BIDEOA - SOINUA  
**expert**  Banatzaile ofiziala

Asuncion, 1  
Tfnoa: 79 10 97


**Aretxabaleta**

• AIPUA •

*“Zabartzaroaren drama ez da zaharra izatea, gazte izandakoa baizak”*

OSCAR WILDE

• JEROGLIFIKOA •



Nola dago zerua?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10						
		11				12
13	14		15			
16						17
18			19			

J. B. AGORRIA

**Horizontala** 1. Udalako Ingurugiro Eskola. 4. (Ald.) Klera. 8. Lanbidez berriak prestatzen ditu. 10. Arin. 11. (Ald.) Atsegin. 13. (Ald.) Alaitasun. 15. Ez eme. 16. Zabalik. 18. Nortasun Agiri Nazionala. 19. Bare.

**Bertikalak** 1. Begi bistako. 2. Joan den urtean. 3. Jarpen. 4. Futboleantza zaintzen duena. 5. Trauskila. 6. Iraunkortasunik ez duena. 7. Titanioa. 9. Berba. 12. Bake. 14. (Ald.) Zerbaitetarako alde egoki. 17. Iridioa.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Bakarrik egotea komeni zaizu egun batzuetan, zure geroaz pentsatzeko.

**Taurus** Datorren astean hotz ikaragarria egingo duenez, hobe duzu beroki bat erostea.

**Gemini** Ez pentsa telebistako filmeetan agertzen den guztia egia denik.

**Cancer** Ez du merezi bizitza honetan horrenbeste negar egiterik.

**Leo** Beti dirua eskatzen zabiltzan arren, nabaria da diru beharrik ez duzula.

**Virgo** Matematikako ariketak ondo egiteko, garbi dago zu baino burutsuago izan behar dela.

**Libra** Nahiz eta amarekin beti haserre ibili, egiaren orduan asko maite duzu.

**Scorpio** Zure ipurdi politik inguruko neska guztiak liluratzen ditu.

**Sagitarium** Zure umekeriekin kokoteraino dauzkazu inguruko guztiak.

**Capricorn** Ez esan ekologista zarenik paper eta zakarrak mendian botatzen jarraitzen duzun bitartean.

**Aquarius** Amets egiten baduzu, lasai; merezi du onak baldin badira.

**Piscis** Aspertuta bazaude badituzu mila gauza diberti zaitezten.

# HITZALDIA

## Etorkizuneko telebista

Hizlariak:

- INES INTXAUSTI ( Egunkariko telebista kritikaria)
- EDORTA ARANA ( E.H.U.ko irakaslea)

Eguna: **astelehena 17**

Ordua: **arratsaldeko 7etan**

Non: **Monterron Jauregiko Hitzaldi Aretan**

AEDk antolatuta





• ANA CRESPOREN GOMENDIOA •




**Pianoko irakaslea da Ana, eta bere lanarekin zerkusia duen gomendioa eman digu: instrumentu bat jotzen ikastea. Berari osoena pianoa iruditzen zaiola dio. Gaur egun, 5-6 urterekin hasten dira umeak instrumentua ikasten, eta solfeoarekin batera ikasten dute gainera, "erdi jolasean eta modu atseginean". "Pianoa jotzea iheserako aukera da niretzat, eta edonori gomendatuko nioke".**

• PROGRAMAZIOA •



- 16 Igandea**  
20.00etan  
Astebete programaren errepikapena  
20.30etan  
Mondragol.
- 17 Astelehena**  
13.30etan  
Astebete errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport  
22.00etan  
Filme Erraldoia: "Willow"
- 18 Asteartea**  
13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
Mondrasport errep.  
14.05etan  
"Willow" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan.  
22.00etan  
Dokumentala: "Petrolioia-Espezien ebo-luzioa"
- 19 Asteazkena**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
ATBketan errep.  
14.05etan  
Dokumentala errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Tertulixan  
22.00etan  
"Sanson eta Dalila"
- 20 Osteguna**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Tertulixan errep.  
14.05etan  
"Sanson eta Dalila" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Amuriza  
22.00etan  
"Hamaseigarrenean aidanez"
- 21 Ostirala**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Bakarka errep.  
14.05etan  
"Hamaseigarrenean aidanez" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Hauren eguna: "Luky Luke, daltondarren balada"

• KOMIKIA •



beinke

HAURTXOA

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

"EDERTU"  
ileapaindegia

San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

• SOLUZIOAK •

Oskarbi.  
JEROGIFIKOA  
17. It.  
Irol. 7. It. 9. Ele. 12. Pake. 14. Aro.  
Ezarpn. 4. Aitezain. 5. Zakarara. 6.  
Bertikalak 1. Ukaezin. 2. Iaz. 3.  
19. Nare.  
Kazertar. 10. Azaleko. 11. Plazer. 13.  
Horizontalak 1. U.I.E. 4. Tiza. 8.  
GURUTZEGRAMA

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65**

**Etxebizitzak**

- **Lokal bat salgai.** 85 m<sup>2</sup>. Elkano kalean, 4. Tfnoa: 79 19 99. Manuel Bouzon.
- **Etxebizitza amueblatua salgai Bergaran.** Arte-kale, 16 -1<sup>o</sup>. Tfnoa: 76 12 81.
- **Etxebizitza alokatzen da** gutzit amueblatua. Helbidea: Maalako Arrabala, 21 lehena. Tfnoa: 79 47 17. Deitu 8,00etatik aurrera.
- **Urbe auzoan garajea** eta traste-lekua salgai. Deitu 77 13 02 tfnora.
- **Suizako neska batek** logela bat alokatuko luke, lehen bait lehen. Urtariletik ekainera. Tfnoa: 79 90 36. Rita
- **Garaje bat alokatzen da** Uribe auzoan. Tfnoa: 94- 683 07 72.
- **Bi ohedun logela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza txikiren bat** alokairuan hartuko nuke, Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Alokatzeko asmo barik hutsik daukazu hori ondo zainduko dizut. Dei egin gauez 79 01 66 tfnora.
- **Goi mailako etxebizitza salgai** Arrasateko erdikaldean, 95 m<sup>2</sup> eta 20 m<sup>2</sup> sotoa, solarium handia erdi jantzia. Kalitate handiko materialak. Bulego edo antzekotarako oso egokia. Tfnoa: 79 64 50.
- **Errioxako San Vicenten etxebizitza salgai.** 85 m<sup>2</sup>, egongelan beheko sua, jantzita dago. Igerileku, tenis, frontoi eta berdegune askoko urbanizazioan. Prezioa: 12.750.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Garaje salgai.** Jose Luis Iñarran, 20. Tfnoa: 79 36 79.

**Lana**

- **Zure aulkia hondatuta baduzu,** lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Dei egin 79 15 96 tfnora.
- **O.H.O. ko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Enpresa zientzietan lizentziatuak** O.H.O., U.B.I., B.B.B eta enpresa zientzietako klase partikularrak ematen ditu. Tfnoa: 79 16 19.
- **Esperientziadun neska, prest** dago etxeko edozein garbiketa, ume txiki edo/eta nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei egin 79 27 50 tfnora. Azuzena.
- **Pertsona bat behar dut klase partikularrak** emateko REM 1. mailako batentzat. Tfnoa: 79 99 97.
- **Emakumea prest lan egiteko,** umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Euskalduna. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neska**k umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **Klase partikularrak ematen ditut.** COU eta EFPraino. Dei egin 79 84 75 tfnora goizez eta 79 02 76ra arratsalde. Judith.
- **Lokal komertzial, bulego, etxeetako garbiketarako** egiteko prest. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **OHO zein ingelesezko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Emakume euskalduna behar da** umeak zaintzeko. Dei egin 79 28 01 tfnora.

**Salerosketak**

- **Estufa japoniarra** saltzen da. 20.000 PTA. Tfnoa: 79 99 91.
- **Sofa, mahaia, mezedora** eta zumitzezko jarlekua salgai. Batera edo banan banan. Tfnoa: 79 47 94.
- **Salgai:**
  - AMSTRAD 2086 ordenagailua
  - Barruko 3 1/2 tako disketerak
  - Kanpoko 5 1/4 tako disketerak
  - VGA pantaila
  - Xagua
  - ACAD diskoak
  - D Base diuskoa
  - Lotus diskoa
  - Jokuak
- Prezioa: 60.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zenbakira eta Eduardoz galdetu.
- **“Barco” ohea salgai.** Tfnoa: 79 30 90
- **Komoda bat salgai.** Tfnoa: 79 35 21.
- **Eski alpinoko botak** salduko nituzke. 46 zenbakiko Salomon 547 modeloa. 4 aldiz erabiliak eta oso oso merke. Dei egin 79 50 41 Znbkira. Jon.
- **Kutxa-izozkailu berria salgai.** 30.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.

**Denetarik**

- **Kotxe zaharra botatzera zoazela?** HIES Ekimena kotxe baten beharrean dago, beraz... Tfnoa: 79 26 99.

**Aste Gazte**

**Lana**

• Gipuzkoako Diputazioak ondoko lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: Ingurugiroko goimailako teknikari lanpostu bat; Goimailako arkitektoen lau lanpostu; Basoetako injineru tekniko lanpostu bat; Giza Baliabideetako erdimailako teknikarien bi lanpostu; Agiritegiko Erdi mailako teknikari lanpostu bat; Ogasuneko erdimailako teknikarien hogeita hemezortzi lanpostu; Ogasuneko goimailako

lako teknikarien hogeita bost lanpostu; Laborategiko Teknikari lanpostu bat; Gazteriko erdimailako teknikarien bi lanpostu; Zerga-Agenteen sei lanpostu; Inprimategiko mantenimendu eta kalitate kontrolako erdimailako teknikari lanpostu bat.

**Bekak**

• Parisko Ikastetxe Espainiarrak eta Argentaria Fundazioak, Gazte ikertzailentzat hiru beken deialdia egiten du. Ikasketak eta ikerketak Parisen egingo direla-

rik. Epea: Otsailak 28.

**Lehiaketak**

• Valle-Inclan Elkartearen II Saria. Poesia, Kontakizuna, Teatroa, Irrati gidoia eta Zinema-Telebistarako. Epea: Martxoak 30.

• “Felix Ugarte” II. Itzulpen Lehiaketa. Filologia, Geografia nahiz Historiari buruzko ari diren testuen itzulpen tekniko argitaraga-beak izango dira, itzultzaileak berak aukeratuak, osotasuna dutenak, edozein hizkuntzatatik euskaratuak, gutxienez hamar orrialdekoak. 100.000 PTAko sari bakar bat izango da. Epea: Urtarrilak 28.

**“Pertsona zaharrik gabe, haur-eskola bat emango luke munduak.”**

**ROSALIA DE CASTRO**




**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# Gida 94

Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz-Gatzaga

Gure gida ez badaukazu,  
deitu 77 08 15 tnora.



**DOHAINIK DA!!**



BIGARREN URTEZ, FORMULA 1EAN TXAPELDUNA



RENAULT sport F1



Williams RENAULT 1992-1993 KO FORMULA 1EAN TXAPELDUNA